

IDEIA

Gu, Ibaizabal Ikastolako Haur Hezkuntza zikloko ikasle talde bat gara eta honen bitartez bururatu zaigun ideia proposatu nahi dizuegu .

Gure proiektua, haurren aisialdiarekin zerikusia duten espazio edota erakunde zehatz batzuetan pantailak jartzea da; adibidez, ikastetxeetan, ludoteketan, zenbait udalekutan baita herriko liburutegian... Gela horretako paretak pantailekin estalita egongo dira, eta pantailak, munduko paisai eta soinu desberdinak plazaratuko ditu, beti ere gelan egiten ditugun jardueren arabera; adibidez, ipuin bat kontatzerako orduan, basoarekin erlazioa badauka, pantaila horien bitartez basoaren irudiak jarriko ditugu; baita animaliak eta haien soinuak. Honekin, haurrak hobeto murgilduko dira ipuinean eta haiek ere ipuinean sartzeko aukera gehiago izango dute. Gure helburu nagusia, komunitatek ateratzen den testuinguru zehatz bat lortzea edo eskaintzea da.

Beste alde batetik, haurrak zentzumenekin esperimentatzeko aukera izango dute, pantailetatik ere soinua aterako delako, eta ideia honen bitartez, haurrek ere beraien irudimenean ekarpen onuragarria jasoko dute, baita etorkizun batera begira ere. Hala aber, taldeko bakoitza praktiketan ibili gara eskola zein ikastola desberdinetan. Jada, baditugu ezagunak hezkuntza arloan, zehatz mehatz, haur hezkuntzat eta jadanik ez dugu honelako produkturik inon ikusi. Euskal Herrian behintzat ez dago produktu hau eskaintzen duten erakunderik. Horregatik beharrezkoa ikusi dugu gure ideia aurrera eramatea.

Edozein filma ikusterakoan adibidez, askoz erosoagoak eta baliagarriagoak izan ahal direlako pantailak, alde batetik haurra testuinguru horretan sartzeko eta bestetik, hobeto ulertu ahal izateko momentuan ikusten ari diren filma, izan ere, lehenengo momentutik konturatu gara haurrei momentu honetan eskaintzen zaien bakarra telebista zahar bat dela.